

## Giza Balioen Heziketarako lan taldea

Lan talde honek hartu duen atsedenaldira luzearen ondoren, hurrengo urtarrilaren 28an berri ere ekingo dio gaiari, 2009 urtean Denon Eskolako IGE-entzat erabilgarriak izan daitezkeen proposamen zehatzak prestatzeko.

Talde honen helburua gurasook ikastetxeetan burutzen den lana laguntzeko egin dezakegunaren inguruan hausnarketa egitea da, batez ere giza balioen sustapenean; baina ez bakarrik gure seme-alabengan, guran baita ere, heziketa ez baita norabide bakarrekoa, guztiok gara heziak eta guztiok gara hezitzaile. Familia eta irakasleriaren arteko topagune eta elkarlanerako espazio berriak aurkitzeko garaia da, eta talde honek bateratzearen aldeko proposamenak egiteko lan egingo du.

Lan taldea irekita dago gaiaren inguruko kezka duten pertsona guztientzat, beraz gonbidaturik zaudete etorri nahi duzuen pertsona guztiak hurrengo urtarrilaren 28an, asteazkena, 18:00etan, Denon Eskola-ren egoitzan. Bileraren iraupena 2 ordukoa izango da gehien jota.

Bileraren helburua orain arte egindakoaren errepaso egin eta 2009rako lan proposamena egitea izango dira.

Zuen zain gelditzen gara.

## Ekimen berria: Kafe-tertulia

Denon Eskolan abiatuko dugun ekimen honen berri eman nahi dizuegu.

Guraso Elkarteak askotan ibiltzen gara elkarren berri izan gabe, eta gure "bakardade" horrek sarri lana zailtzen digu. Ditugun arazo, kezka eta beharrak, aurkitutako irtenbideak, izandako esperientziak... elkarri kontatzeko aukera sortu nahi dugu, elkar ezagutzeko elkar laguntzeko asmoarekin. Ez da egitasmo handizalea, xumea eta praktikoa izan nahi du, eraginkorra. "Kafe-tertulia" izendatu dugu egitasmoa. Giro atsegi- nean, kafe kikara baten inguruan, arduratzen gaituen gai zehatz bati buruz ordu eta erdiz gutxi gorabehera hitz egiteko deialdia luzatuko dizuegu tarte-ka.

Hori dela eta animatu nahi zaituztegu ekimen berri honetan parte har dezazuen denon artean IGE legeaz kezkatzen gaituzten gaiak landu eta ekarpenak egin ditzagun.



## Landa Eskola

Askotan aipatu dugu landa eskolaren inguruan lan talde bat sortzearen beharra IGE horien gai espezifikokoak landu ahal izateko, eta horrela adierazi zen ikasturte hasieran herrialdeko IGE ezberdinekin egindako bileratan eta baita Denon Eskolaren Batzar Orokorrean bertan.

Aipatu beharrekoa da une honetan ez dagoela Denon Eskolaren zuzendaritza batzordean herrialdeko IGE-etako ordezkariak.

Landa eskolaren inguruko gaiak lantzeko bilera bat deitu genuen Denon Eskolan joan den urtarrilaren 15ean, eta bertara 5 IGE-tako ordezkariak azaldu ziren, beste bi IGE-k etortzeko ezintasuna adierazi bazuten ere.

Bilera oso interesgarria izan zen eta lanean hasteko lehen urratsak eman genituen.

Lantutako gai nagusiak ondokoak izan ziren: Jantokiak (eraikinak, jakien kalitatea,...), eskola garraioa (segurtasuna, uhalak, abiadura,... bezalakoak azpimarratuz), leku arazoa eta eraikuntza desegokiak dauzkaten hainbat ikastetxeren egoera, egonkortasun eza eta ordezkapenak irakasleriari dagokionez,...

Denon Eskolatik Administrazioaren aurrean dugun solaskidetza funtzioa azpimarratu genuen ere.

Lehen kontaktu honen ondoren herrialdeko IGE guztiei jakinaraziko zaizkien lan ildoak zehaztuko ditugula erabaki genuen.

## IGE-ekin bilerak

Ikasturtearen hasieran Denon Eskolaren zuzendaritza batzordean, besteren artean IGE guztiekin kontaktu zuzena izateko helburua ezarri genuen.

Horretarako beraz, herrialdeko zein Vitoria-Gasteizko IGE-ak taldeka antolatu genituen iraila eta azaroa artean guztiekin bilerak izateko.

Guraso Elkartearen asistentzia handiagoa izan zen herrialdean, IGE-en %83, Gasteiz hiriburuan baino, %38.

Bilera hauetan Denon Eskolaren jardueraren berri eman zen eta IGE ezberdinen zalantza, esperientzia eta arazoei buruz hitz egin zen. Aipatu ziren gaien artean ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

IGE-en funtzionamendu eta antolaketa; Eskolaz kanpoko ekintzak; Ikastetxeetako ordutegiak; Eskola Kontseiluak; Eskola Mapa; Matrikulazioa eta baremazioa; IGE-entzako laguntza ekonomikoak; Eskola aseguruak; Jantokiak eta garraioa; euskararen erabilera seme-alaben artean; Irakasleria (motibazioa, egonkortasun eza,...)

Bilera hauen gaineko oso balorazio positiboa egiten dugu federazioa eta IGE-ak eta IGE-en beraien arteko kontaktu zuzena suposatzen duelako, eta arazo komunak landu eta esperientziak sozializatzeko modu interesgarria delako.

Bileratarago agertutako IGE guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu berriro eta ideia bat nabarmendu nahi dugu bereziki, DENON ESKOLA gu guztiok osotzen dugu.

## agenda

### ESKOLA KONTSEILUEI BURUZKO IKASTAROA

Urtarrilak 31

Denon Eskola-ren egoitzan

9:30etatik 14:30etara

### JARDUNALDIA

#### "LAIKOTASUNA ETA HIRITARTASUNERAKO HEZIKETA"

Otsailak 4

Amurrioko Zeraobe Institutuan

18:00etan

### ANTZERKIA

#### "NOSKIREN BIDAIA MAGIKOA"

Otsailak 13

Iparralde Gizarte Etxea

18:00etan

Otsailak 27

Hegoalde Gizarte Etxea

18:00etan

### HITZALDIA

#### "SEME-ALABEK "D" EDERUAN IKASTEN DUTE ETA NIK EZ DAKIT EUSKARA, NOLA LAGUNDU?"

Otsailak 25

Kanpezuko Kultur Gunean

19:00etan

## AURRE-MATRIKULA KANPAINA

2009ko otsailaren 2-tik

otsailaren 13-ra

Ikastetxe guztietan